

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DULANTZIKO UDALA

#### 2020ko jarduera ekonomikoen gaineko zerga kobratzea

Nik, Yolanda Fernández de Larrea Medina Alegría-Dulantziko (Araba) Udaleko alkateak.

Jakinarazten dut: 2020ko azaroaren 1etik 30era bitarteko egun baliodunetan, egun biak barne, ordaintzeko moduan egongo direla, borondatezko aldian, 2020ko jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren ordainagiriak.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea: 2020ko azaroaren 1etik abenduaren 30era.

Premiamendu aldia (ehuneko 5eko errekararekin): 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera. Egun horretatik aurrera administrazio premiamendu bidezko prozedura betearazleari emango zaio hasiera, hala xedatzen baitu indarrean den Dirubilketarako Araudi Orokorrak.

Ordaintzeko tokia eta modua:

Banketxeetan helbideratutako ordainketak: Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa bankuan helbideratuta ez dutenek, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpenean agertzen diren banku bulegoetan ordaindu ahal izango dute, borondatezko epean.

Dulantzi, 2020ko urriaren 26a

*Alkatea*

*YOLANDA FERNÁNDEZ DE LARREA MEDINA*